

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

## 4047

*AGINDUA, 2025eko irailaren 15ekoa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskaletako funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorretarako deialdia egiten duena eta haien oinarri espezifikoak onartzen dituena.*

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 94.2 artikulua xedatzen duenez, funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak lehiaketako eta izendapen askeko sistemen bidez beteko dira, lanpostu-zerrendetan ezarritakoaren arabera. Bestalde, lege horren 97. artikuluan eta hurrengoetan lanpostu hutsak lehiaketaren bidez betetzeko deialdiak nola egin behar diren arautzen da.

Halaber, urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren bidez, Euskal administrazio publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudia onartu zen, eta II. kapituluaren lanpostuak lehiaketa bidez betetzeko prozedura garatu zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskaletako funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorren oinarri orokorrak onartzen dituen Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren 2025eko irailaren 15eko Agindua, 1.2 oinarrian dio lehiaketa orokor bakoitzaren berezitasunak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan arautuko direla.

Deialdi hauen xedea da lehiaketa bidez bete behar diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko eskaletako lanpostu hutsak betetzea.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen VIII. tituluaren II. kapituluaren lanpostuak lehiaketa bidez hornitzeari buruz ezarritakoarekin bat etorriz, eta lege horren 18.2.t) artikulua bidez emandako ahalmenak baliatuz, eta aintzat hartuta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 3.3.f) artikuluan xedatutakoa, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Lehiaketa hauetarako deialdia egitea:

– Administrariaren Eskalako, Administralari Laguntzaileen Eskalako eta Laguntzako Langileen Talde Profesionaleko lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorra.

– Laguntzaile Teknikoen Kidegoko eskaletako lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorra.

– Administrazioko Goi-mailako Kidegoko, Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko, Administrazio-kudeaketako Kidegoko eta Kidego Teknikoko eskaletako lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorra; berariazko osagarria: III-B, III-C, IV-A, IV-B eta IV-C.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskaletako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorretako oinarri orokorrak onartzen dituen Gobernantza,

2025eko irailaren 29a, astelehena

Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena 2025eko irailaren 15eko Aginduak arautuko ditu agindu honen bidez iragartzen den deialdiko lehiaketak.

Bigarren artikulua.– Onartzea agindu honen I. eranskinetik III.era bitarteko eranskinetan adierazitako oinarri espezifikoak.

Hirugarren artikulua.– Epe hau ezartzea eskabideak aurkezteko: 2025eko irailaren 22tik 2025eko urriaren 10eko 14:00etara.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; betiere, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 15a.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,  
MARÍA UBARRECHENA CID.

## I. ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazio Eskalako, Administrazio Laguntzaileen Eskalako eta Laguntzako Langileen Talde Profesionaleko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorraren oinarri espezifikoak.

Lehenengoa.– Balorazio Batzordearen osaera.

Hauetako izango dira Balorazio Batzordeko kideak:

Batzordeburua: Luisa Mazo Somarriba.

Idazkaria: Eider Basañez Llanos.

1. bokala: Jesus Castillo Galindo.

2. bokala: Valentín Fernández de Luco Martínez.

3. bokala: Rosa Fernández Mendizabal.

Bigarrena.– Lanpostuak esleitzeko gutxieneko puntuazioa.

Gehienez ere, 215 puntu lor daitezke; lanpostua esleitzeko, 11 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

Hirugarrena.– Merezimenduak baloratzeko baremoa.

1.– Administrazio publikoei atxikitako lanpostuetan izandako lan-esperientzia.	
Azken 10 urteotako lan-esperientzia baloratuko da, gehienez 90 punturekin. Hauxe da erabiliko den baremoa:	
Lan-esperientzia, eskuratu nahi den lanpostuan bertan:	0,80 puntu hilabete bakoitzeko.
Lan-esperientzia, eskuratu nahi den lanpostua atxikita dagoen eskaletako bati edo beste administrazio publikoetako parekatutako eskaletako bati atxikitako lanpostuetan:	0,45 puntu hilabete bakoitzeko.
Lan-esperientzia, eskuratu nahi den lanpostua atxikita dagoen taldeari atxikitako lanpostuetan:	0,08 puntu hilabete bakoitzeko.
<p>1.1.– Aldi berean emandako zerbitzuak ez dira inoiz modu independentean zenbatuko. Horri dagokionez, ez dira zenbatuko eginkizunak behin-behinean esleituta emandako zerbitzuak.</p> <p>1.2.– Zerbitzu berezietan edo seme-alabak zaintzeko edo senideak zaintzeko eszedentzian edo indarkeria terroristagatik edo genero-indarkeriagatik eszedentzian emandako aldiak, azken 10 urteotan denbora gehien bete duten funtzionario-lanpostuan baloratuko dira. Funtzionario-lanposturik izan ez dutenei titular gisa erreserbatuta duten lanpostuaren arabera egingo zaie balorazioa. Lanpostu baten titularrak ez badira, aldiz, bete duten azken lanpostuaren egitekoen arabera egingo da balorazioa.</p>	

<p>1.3.– Betetzen duten lanpostuko lan-esperientzia moduan zenbatuko dira zeregin hauetan emandako aldiak: prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak, euskararen ikaskuntza, norberaren gauzetarako baimenak, aldi baterako ezintasuna edo parekatutako egoerak.</p> <p>1.4.– Goragoko talde bateko edo norberari dagokion taldeko beste kidego bateko lanpostuetan zerbitzu-eginkizunetan emandako aldiak titulartasuneko lanpostuan zenbatuko dira. Lanpostu baten titularrak ez badira, aldiz, norberari dagokion kidegoan bete duten azken lanpostuaren egitekoen arabera egingo da balorazioa.</p> <p>1.5.– Goi-kargudunaren idazkari-lanpostu baten titular gisa (520010) eginiko aldiak administrari orokorraren lanpostuan (520040) zenbatuko dira.</p>	
2.– Titulu akademikoak.	
<p>Unibertsitateen edo ospe handiko instituzioen titulu akademiko ofizialak edo berezko tituluak baremo honen arabera baloratuko dira, bete nahi den lanpostuaren zereginekiko lotura kontuan hartuta eta gehienez 30 punturekin:</p> <p>a) C1 eta C1/C2 lanpostuetarako:</p>	
Lanbide Heziketako Goi-mailako Teknikariaren titulua.	gehienez 20 puntu titulu bakoitzeko.
Lanbide Heziketako Teknikariaren titulua.	gehienez 10 puntu titulu bakoitzeko.
Doktoretza, graduondokoa, gradua, lizentziatura, arkitektura, ingeniari-tza, diplomatura, arkitektura teknikoa edo ingeniari-tza teknikoa.	gehienez 5 puntu titulu bakoitzeko.
b) C2 eta C2/E lanpostuetarako:	
Lanbide Heziketako edo Batxilergo-ko Teknikarien tituluak.	gehienez 20 puntu titulu bakoitzeko.
Lanbide Heziketako edo Batxilergo-ko Goi-mailako Teknikariaren titulua.	gehienez 10 puntu titulu bakoitzeko.
c) Laguntzako Langileen Talde Profesionaleko lanpostuak:	
Lanbide Heziketako edo Batxilergo-ko Teknikarien tituluak.	gehienez 20 puntu titulu bakoitzeko.
<p>2.1.– Titulu-azpitalde desberdinetako eskaletako lehiakideek dotazio bera eskatzen badute, beheko taldeko langileei ez zaizkie merezimendu moduan baloratuko goragoko kidego edo eskalan sartzeko eskatzen diren titulu ofizialak.</p> <p>2.2.– Irakaskuntza akademiko bereko ziklo desberdinak gainditu dituztela frogatzen duten langileei soilik baloratuko zaie frogatutako zikloetatik gorengoari dagokion titulua.</p> <p>2.3.– Ez da merezimendu gisa baloratuko lanpostuan eskatzen den goi-mailako titulua lortzeko behar den titulua.</p> <p>Administrazio honen iritziz dagoeneko baloratu diren edo betekizun gisa eskatzen diren beste titulu batzuekiko baliokideak diren tituluak ez dira baloratuko.</p>	

3.– Hobekuntza-ikastaroak.	
Deialdiko lanpostuari lotutako gaien inguruko hobekuntza-ikastaroak gaindituta dituztenei ikastaro horiek gehienez 40 punturekin baloratuko zaizkie. Hauxe da erabiliko den baremoa:	
50 eta 79 eskola-ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak.	gehienez 20 puntu ikastaro bakoitzeko.
80 eta 149 eskola-ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak.	gehienez 25 puntu ikastaro bakoitzeko.
150 eskola-orduko edo gehiagoko iraupena duten ikastaroak.	gehienez 30 puntu ikastaro bakoitzeko.
<p>3.1.– Hobekuntza-ikastaroak Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak edo unibertsitate edo administrazio publikoek antolatutakoak eta homologatutakoak izan behar dira, edo, bestela, trebakuntzaren, giza baliabideen garapenaren, lanbide-prestakuntzaren edo ikerketaren esparruetan ospe handia duten erakundeek emandakoak.</p> <p>3.2.– Azken 10 urteotan egindako ikastaroak bakarrik baloratuko dira; baina, salbuespen moduan, 150 ordukoak edo hortik gorakoak ere onartuko dira, noiz egin diren kontuan hartu gabe baloratuko baitira.</p> <p>3.3.– Iraupena kreditutan ematen bada, kreditu bakoitzak 10 orduko baliokidetza izango du, beste zehaztasunik ematen ez bada behintzat. ECTS kreditu bakoitzak, ordea, 25 orduko baliokidetza izango du.</p> <p>3.4.– Gai berari buruzko ikastaroak edo ikastaro beraren edizio ezberdinak behin bakarrik baloratuko dira; arlo horretan ordu-kopuru handiena duena aukeratuko da horretarako.</p> <p>3.5.– Konpetentzia-unitateen egiaztapen partzialak eta profesionaltasun-ziurtagiriak ez dira prestakuntza-ikastaro gisa baloratuko.</p> <p>Halere, profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prestakuntza-unitateak eta prestakuntza-moduluak baloratu ahal izango dira, betiere prestakuntza-ikastaro ziurtatuen bidez lortu badira, dagozkien orduekin.</p> <p>3.6.– Hizkuntza-ikastaroak ez dira baloratuko.</p>	
4.– Euskara jakitea.	
Euskara jakitea baloratuko da derrigortasun-data igarota ez izateagatik betekizuntzat eskatzen ez den lanpostuetan.	
Gehienez 22 puntu emango dira, puntuazio honen arabera:	
3. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan:	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu. 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu. 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 25 puntu.
2. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan:	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu. 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu.

1. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan:	1., 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu.
<p>4.1.– Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuari (ETZEB) kontsulta eginez egiaztatuko dira euskararen hizkuntza-eskakizunak. Erregistro horretan euskara-probako lehen ariketaren eguneko edo aurreko egiaztatze-datarekin inskribatuta dauden hizkuntza-eskakizunak egiaztatutzat joko dira.</p> <p>4.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako hizkuntza-eskakizunen baliokide diren ziurtagiri eta tituluak dekretu hauetan zehaztuta daude: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena.</p>	
5.– Gradu pertsonal finkatua.	
Parte hartzen den kidegoan edo eskalan gradu pertsonal finkatua duenari gehienez 10 puntu emango zaizkio, banaketa honen arabera:	
Eskatutako lanpostuaren destino-osagarriaren maila bereko edo handiagoko gradu pertsonala duenari.	10 puntu
Eskatutako lanpostuaren destino-osagarriaren maila baino gradu pertsonal txikiagoa duenari.	7,5 puntu
6.– Antzintasuna.	
Gehienez 10 puntu lor daitezke.	
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren organismo autonomoek hirurtekoen ondorioetarako aitortutako antzintasunagatik.	0,084 puntu hilabete bakoitzeko
7.– Hizkuntzak jakitea.	
Hizkuntzak jakiteagatik gehienez 10 puntu emango dira. Hauxe da erabiliko den baremoa:	
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko B1 mailaren titulu eta ziurtagiri baliokideak:	5 puntu.
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko B2, C1 eta C2 mailen baliokideak diren tituluak eta ziurtagiriak:	10 puntu.
Honako lege-xedapen hauetan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotako titulu eta ziurtagiriak bakarrik baloratuko dira: 2015eko ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuaren eranskina (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuen	

hautatze- eta hornitze-prozesuetarako tituluen eta hizkuntza-ziurtagirien baliokidetasunari buruzko Dekretua), eta 2017ko abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretua (Zenbait ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-ikasketen eta errege-dekretu honetako en arteko baliokidetzak oinarrizko izaeraz ezartzen dituen Errege Dekretua).

## II. ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako karrerako funtzionarioentzat gordetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko eskaletako lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorraren oinarri espezifikoa.

Lehenengoa.– Balorazio Batzordearen osaera.

Hauetaz izango dira Balorazio Batzordeko kideak:

Batzordeburua: Yolanda Elvira Montes.

Idazkaria: Eider Basañez Llanos.

1. bokala: Josu Uribe Oleaga.

2. bokala: Gorka Lorenzo Ruiz.

3. bokala: M.<sup>a</sup> José Armentia Pérez.

Bigarrena.– Lanpostuak esleitzeko gutxieneko puntuazioa.

Gehienez ere, 215 puntu lor daitezke; lanpostua esleitzeko, 11 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

Hirugarrena.– Merezimenduak baloratzeko baremoa.

1.– Administrazio publikoei atxikitako lanpostuetan izandako lan-esperientzia.

Azken 10 urteotako lan-esperientzia baloratuko da, gehienez 80 punturekin. Hauxe da erabiliko den baremoa:

Lan-esperientzia eskuratu nahi den lanpostuan bertan:	0,70 puntu hilabete bakoitzeko.
---	---------------------------------

Lan-eskarmentua, eskuratu nahi den lanpostuari atxikitako taldeari atxikitako lanpostuetan.	0,08 puntu hilabete bakoitzeko.
---	---------------------------------

1.1.– Aldi berean emandako zerbitzuak ez dira inoiz modu independentean zenbatuko. Horri dagokionez, ez dira zenbatuko eginkizunak behin-behinean esleituta emandako zerbitzuak.

1.2.– Zerbitzu berezietan edo seme-alabak zaintzeko edo senideak zaintzeko eszedentzian edo indarkeria terroristagatik edo genero-indarkeriagatik eszedentzian emandako aldiak, azken 10 urteotan denbora gehien bete duten funtzionario-lanpostuan baloratuko dira. Funtzionario-lanposturik izan ez dutenei titular gisa erreserbatuta duten lanpostuaren arabera egingo zaie balorazioa. Lanpostu baten titularrak ez badira, aldiz, bete duten azken lanpostuaren egitekoen arabera egingo da balorazioa.

1.3.– Betetzen duten lanpostuko lan-esperientzia moduan zenbatuko dira zeregin hauetan emandako aldiak: prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak, euskararen ikaskuntza, norberaren gauzetarako baimenak, aldi baterako ezintasuna edo parekatutako egoerak.

1.4.– Goragoko talde bateko edo norberari dagokion taldeko beste kidego bateko lanpostuetan zerbitzu-eginkizunetan emandako aldiak titulartasuneko lanpostuan zenbatuko dira. Lanpostu baten titularrak ez badira, aldiz, norberari dagokion eskalan bete duten azken lanpostuaren egitekoen arabera egingo da balorazioa.

2.– Titulu akademikoak.	
Unibertsitateen edo ospe handiko instituzioen titulu akademiko ofizialak edo berezko tituluak baremo honen arabera baloratuko dira, bete nahi den lanpostuaren zereginetikiko lotura kontuan hartuta eta gehienez 30 punturekin:	
Lanbide Heziketako Goi-mailako Teknikaria- ren titulua.	gehienez 25 puntu titulu bakoitzeko.
Doktoretza, graduondokoa, gradua, lizen- tziatura, arkitektura, ingeniari-tza, diplomatura, arkitektura tekniko-a edo ingeniari-tza tekniko-a.	gehienez 10 puntu titulu bakoitzeko.
<p>2.1.– Titulu-azpitalde desberdinetako eskaletako lehiakideek dotazio bera eskatzen badute, beheko taldeko langileei ez zaizkie merezimendu moduan baloratuko goragoko kidego edo eskalan sartzeko eskatzen diren titulu ofizialak.</p> <p>2.2.– Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.</p> <p>2.3.– Irakaskuntza akademiko bereko ziklo desberdinak gainditu dituztela frogatzen duten langileei soilik baloratuko zaie frogatutako zikloetatik gorengoari dagokion titulua.</p> <p>2.4.– Ez da merezimendu gisa baloratuko lanpostuan eskatzen den goi-mailako titulua lortzeko behar den titulua.</p> <p>Administrazio honen iritzi-z dagoeneko baloratu diren edo betekizun gisa eskatzen diren beste titulu batzuekiko baliokideak diren tituluak ez dira baloratuko.</p> <p>2.5.– Graduondoko titulu moduan baloratu ahal izango dira baldintza hauetakoren bat betetzen dutenak:</p> <p>a) Master ofizialaren maila izatea, eta Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan jasota egotea.</p> <p>b) Unibertsitateko graduondoko berezko titulua izatea, 450 ordukoa edo denbora luzeagokoa, edo gutxieneko iraupena bermatzen duen kreditu kopurua izatea.</p> <p>c) Goi mailako irakaskuntza programa baten agiria edo diploma edukitzea, graduondoko unibertsitate irakaskuntzaren parekoa eta ospe handiko erakunde akademiko edo profesional batek (atzerrikoa ere izan daiteke) emandakoa. Graduondoko irakaskuntza mota hau 450 ordukoa edo gehiagokoa izan behar da gutxienez.</p>	
3.– Hobekuntza-ikastaroak	
Deialdiko lanpostuari lotutako gaien inguruko hobekuntza-ikastaroak gaindituta dituztenei ikastaro horiek gehienez 50 punturekin baloratuko zaizkie. Hauxe da erabiliko den baremoa:	
80 eta 149 eskola-ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak.	gehienez 25 puntu ikastaro bakoitzeko.
150 eta 299 eskola-ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak.	gehienez 30 puntu ikastaro bakoitzeko.
300 ordu edo gehiagoko ikastaroak.	gehienez 35 puntu ikastaro bakoitzeko.

3.1.– Hobetzeko ikastaroak Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak edo unibertsitate edo administrazio publikoek antolatutakoak eta homologatutakoak izan behar dira, edo, bestela, trebakuntzaren, giza baliabideen garapenaren, lanbide-prestakuntzaren edo ikerketaren esparruetan ospe handia duten erakundeek emandakoak.

3.2.– Azken 10 urteotan egindako ikastaroak bakarrik baloratuko dira; baina, salbuespen moduan, 150 ordukoak edo hortik gorakoak ere onartuko dira, noiz egin diren kontuan hartu gabe baloratuko baitira.

3.3.– Iraupena kreditutan ematen bada, kreditu bakoitzak 10 orduko baliokidetza izango du, beste zehaztasunik ematen ez bada behintzat. ECTS kreditu bakoitzak, ordea, 25 orduko baliokidetza izango du.

3.4.– Bulegotikako eta Interneteko programei buruzko ikastaroak ez dira baloratuko.

3.5.– Gai berari buruzko ikastaroak edo ikastaro beraren edizio ezberdinak behin bakarrik baloratuko dira; arlo horretan ordu-kopuru handiena duena aukeratuko da horretarako.

3.6.– Konpetentzia-unitateen egiaztapen partzialak eta profesionaltasun-ziurtagiriak ez dira prestakuntza-ikastaro gisa baloratuko.

3.7.– Hizkuntza-ikastaroak ez dira baloratuko.

3.8.– Ez dira baloratuko ez doktorego-ikastaroak, ez unibertsitate-tituluren bat lortzeko aukera ematen dutenak, ez lanbide-tituluren bat lortzeko aukera ematen dutenak.

4.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea baloratuko da derrigortasun-data igarota ez izateagatik betekizuntzat eskatzen ez den lanpostuetan.

Gehienez 22 puntu emango dira, puntuazio honen arabera:

3. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan:	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu. 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu. 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 25 puntu
2. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan:	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu. 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu
1. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan:	1., 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu.

4.1.– Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuari (ETZEB) kontsulta eginez egiaztatuko dira euskararen hizkuntza-eskakizunak. Erregistro horretan euskara-probako lehen ariketaren eguneko edo aurreko egiaztatze-datarekin inskribatuta dauden hizkuntza-eskakizunak egiaztatutzat joko dira.

4.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako hizkuntza-eskakizunen baliokide diren ziurtagiri eta tituluak dekretu hauetan zehaztuta daude: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin

parekatzeko dena, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena.	
5.– Gradu pertsonal finkatua.	
Parte hartzen den kidegoan edo eskalan gradu pertsonal finkatua duenari gehienez 10 puntu emango zaizkio, banaketa honen arabera:	
Eskatutako lanpostuaren destino-osagarriaren maila bereko edo handiagoko gradu pertsonala duenari.	10 puntu.
Eskatutako lanpostuaren destino-osagarriaren maila baino gradu pertsonal txikiagoa duenari.	7,5 puntu.
6.– Antzintasuna.	
Gehienez 10 puntu lor daitezke.	
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek hirurtekoen ondorioetarako aitortutako antzintasunagatik.	0,084 puntu hilabete bakoitzeko.
7.– Hizkuntzak jakitea	
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko B1 mailaren titulu eta ziurtagiri baliokideak:	5 puntu.
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko B2, C1 eta C2 mailen baliokideak diren tituluak eta ziurtagiriak:	10 puntu.
Honako lege-xedapen hauetan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotako titulu eta ziurtagiriak bakarrik baloratuko dira: 2015eko ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuaren eranskina (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetarako tituluen eta hizkuntza-ziurtagirien baliokidetasunari buruzko Dekretua), eta 2017ko abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretua (Zenbait ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-ikasketen eta errege-dekretu honetakoen arteko baliokidetzak oinarritzko izaeraz ezartzen dituen Errege Dekretua).	

## III. ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio-ko Goi-mailako Kidegoko, Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko, Administrazio-kudeaketako Kidegoko eta Kidego Teknikoko eskaletako lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorra; berariazko osagarria: III-B, III-C, IV-A, IV-B eta IV-C.

Lehenengoa.– Balorazio Batzordearen osaera.

Hauak izango dira Balorazio Batzordeko kideak:

Batzordeburua: Ainhize Ormaza Urteaga.

Idazkaria: Agurtzane Iriondo Goti.

1. bokala: Iker García de Eulate Urdangarin.

2. bokala: Joseba López Basterra.

3. bokala: Margarita González de Heredia López de Sabando.

Bigarrena.– Lanpostuak esleitzeko gutxieneko puntuazioa.

Gehienez ere, 224 puntu lor daitezke; lanpostua esleitzeko, 20 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

Hirugarrena.– Merezimenduak baloratzeko baremoa.

1.– Administrazio publikoei atxikitako lanpostuetan izandako lan-esperientzia.

Azken 10 urteotako lan-esperientzia baloratuko da, gehienez 70 punturekin. Hauxe da erabiliko den baremoa:

Lan-esperientzia eskuratu nahi den lanpostuan bertan

0,60 puntu hilabete bakoitzeko.

Lan-eskarmentua eskuratu nahi den lanpostuari atxikitako kidego edo eskalaren bati atxikitako lanpostuetan

0,35 puntu hilabete bakoitzeko.

Lan-eskarmentua eskuratu nahi den lanpostuari atxikitako taldeari atxikitako lanpostuetan

0,06 puntu hilabete bakoitzeko.

1.1.– Aldi berean emandako zerbitzuak ez dira inoiz modu independentean zenbatuko. Horri dagokionez, ez dira zenbatuko eginkizunak behin-behinean esleituta emandako zerbitzuak.

1.2.– Zerbitzu berezietan edo seme-alabak zaintzeko edo senideak zaintzeko eszedentzian edo indarkeria terroristagatik edo genero-indarkeriagatik eszedentzian emandakoaldiak, azken 10 urteotan denbora gehien bete duten funtzionario-lanpostuan baloratuko dira. Funtzionario-lanposturik izan ez dutenei titular gisa erreserbatuta duten lanpostuaren arabera egingo zaie balorazioa. Lanpostu baten titularrak ez badira, aldiz, bete duten azken lanpostuaren egitekoen arabera egingo da balorazioa.

1.3.– Betetzen duten lanpostuko lan-esperientzia moduan zenbatuko dira zeregin hauetan emandakoaldiak: prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak, euskararen ikaskuntza, norberaren gauzetarako baimenak, aldi baterako ezintasuna edo parekatutako egoerak.

<p>1.4.– Goragoko talde bateko edo norberari dagokion taldeko beste kidego bateko lanpostuetan zerbitzu-eginkizunetan emandako aldiak titulartasuneko lanpostuan zenbatuko dira. Lanpostu baten titularrak ez badira, aldiz, norberari dagokion eskalan bete duten azken lanpostuaren egitekoen arabera egingo da balorazioa.</p>	
<p>2.– Titulu akademikoak.</p>	
<p>Unibertsitateen edo ospe handiko instituzioen titulu akademiko ofizialak edo berezko tituluak baremo honen arabera baloratuko dira, bete nahi den lanpostuaren zereginekiko lotura kontuan hartuta eta gehienez 50 punturekin:</p>	
<p>Doktoregoa.</p>	<p>gehienez 35 puntu titulu bakoitzeko.</p>
<p>Mediku espezialista, farmazialari espezialista, biologo espezialista eta psikologo espezialista.</p>	<p>gehienez 35 puntu titulu bakoitzeko.</p>
<p>Graduondokoak. Berezko tituluak eta master ofizialak (30 ECTS baino gehiago).</p>	<p>gehienez 30 puntu titulu bakoitzeko.</p>
<p>Graduondokoak. Aditu espezialistaren tituluak (gehienez 30 ECTS, 750 ordu).</p>	<p>gehienez 25 puntu titulu bakoitzeko.</p>
<p>Grada, lizentziatura, arkitektura, ingeniariaritz, diplomatura, arkitektura tekniko edo ingeniariaritz tekniko.</p>	<p>gehienez 25 puntu titulu bakoitzeko.</p>
<p>2.1.– Titulu-azpitalde desberdinetako eskaletako lehiakideek dotazio bera eskatzen badute, beheko taldeko langileei ez zaizkie merezimendu moduan baloratuko goragoko kidego edo eskalan sartzeko eskatzen diren titulu ofizialak.</p> <p>2.2.– Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.</p> <p>2.3.– Irakaskuntza akademiko bereko ziklo desberdinak gainditu dituztela frogatzen duten langileei soilik baloratuko zaie frogatutako zikloetatik gorengoari dagokion titulua.</p> <p>2.4.– Ez da merezimendu gisa baloratuko lanpostuan eskatzen den goi-mailako titulua lortzeko behar den titulua.</p> <p>Administrazio honen iritziz dagoeneko baloratu diren edo betekizun gisa eskatzen diren beste titulu batzuekiko baliokideak diren tituluak ez dira baloratuko.</p> <p>2.5.– Graduondoko titulu moduan baloratu ahal izango dira baldintza hauetakoren bat betetzen dutenak:</p> <p>a) Master ofizialaren maila izatea, eta Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan jasota egotea.</p> <p>b) Unibertsitateko graduondoko berezko titulua izatea, 450 ordukoa edo denbora luzeagokoa, edo gutxieneko iraupena bermatzen duen kreditu kopurua izatea.</p> <p>c) Goi mailako irakaskuntza programa baten agiria edo diploma edukitzea, graduondoko unibertsitate irakaskuntzaren parekoa eta ospe handiko erakunde akademiko edo profesional batek (atzerrikoa ere izan daiteke) emandakoa. Graduondoko irakaskuntza mota hau 450 ordukoa edo gehiagokoa izan behar da gutxienez.</p>	

3.– Hobekuntza-ikastaroak	
Deialdiko lanpostuari lotutako gaien inguruko hobekuntza-ikastaroak gaindituta dituztenei ikastaro horiek gehienez 40 punturekin baloratuko zaizkie. Hauxe da erabiliko den baremoa:	
150 eta 299 eskola-ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak	gehienez 15 puntu ikastaro bakoitzeko
300 ordu edo gehiagoko ikastaroak	gehienez 20 puntu ikastaro bakoitzeko
<p>3.1.– Hobekuntza-ikastaroak Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak edo unibertsitate edo administrazio publikoek antolatutakoak eta homologatutakoak izan behar dira, edo, bestela, trebakuntzaren, giza baliabideen garapenaren, lanbide-prestakuntzaren edo ikerketaren esparruetan ospe handia duten erakundeek emandakoak.</p> <p>3.2.– Azken 10 urteotan egindako ikastaroak bakarrik baloratuko dira; baina, salbuespen moduan, 150 ordukoak edo hortik gorakoak ere onartuko dira, noiz egin diren kontuan hartu gabe baloratuko baitira.</p> <p>3.3.– Iraupena kreditutan ematen bada, kreditu bakoitzak 10 orduko baliokidetzaz izango du, beste zehaztasunik ematen ez bada behintzat. ECTS kreditu bakoitzak, ordea, 25 orduko baliokidetzaz izango du.</p> <p>3.4.– Bulegotikako eta Interneteko programei buruzko ikastaroak ez dira baloratuko.</p> <p>3.5.– Gai berari buruzko ikastaroak edo ikastaro beraren edizio ezberdinak behin bakarrik baloratuko dira; arlo horretan ordu-kopuru handiena duena aukeratuko da horretarako.</p> <p>3.6.– Konpetentzia-unitateen egiaztapen partzialak eta profesionaltasun-ziurtagiriak ez dira prestakuntza-ikastaro gisa baloratuko.</p> <p>Halere, profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prestakuntza-unitateak eta prestakuntza-moduluak baloratu ahal izango dira, betiere prestakuntza-ikastaro ziurtatuen bidez lortu badira, dagozkien orduekin.</p> <p>3.7.– Doktoregoko ikastaroak eta unibertsitateko titulua eskuratzeko aukera ematen dutenak hobetzeko ikastaro moduan balora daitezke, aurreko atalen baten baloratu ez badira.</p> <p>3.8.– Hizkuntza-ikastaroak ez dira baloratuko.</p>	
4.– Euskara jakitea.	
Euskara jakitea baloratuko da derrigortasun-data igarota ez izateagatik betekizuntzat eskatzen ez den lanpostuetan.	
Gehienez 24 puntu emango dira, puntuazio honen arabera:	
4. hizkuntza-eskakizuna (C2) duten lanpostuetan:	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 10 puntu.</li> <li>2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu.</li> <li>3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 25 puntu.</li> <li>4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 34 puntu.</li> </ol>
3. hizkuntza-eskakizuna (C1) duten lanpostuetan:	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu.</li> <li>2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu.</li> </ol>

2025eko irailaren 29a, astelehena

3. hizkuntza-eskakizuna (C1) duten lanpostuetan:	3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 25 puntu.
2. hizkuntza-eskakizuna (B2) duten lanpostuetan:	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu. 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu.
1. hizkuntza-eskakizuna (B1) duten lanpostuetan:	1., 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu.
<p>5.1.– Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuari (ETZEB) kontsulta eginez egiaztatuko dira euskararen hizkuntza-eskakizunak. Erregistro horretan euskara-probako lehen ariketaren eguneko edo aurreko egiaztatze-datarekin inskribatuta dauden hizkuntza-eskakizunak egiaztatutzat joko dira.</p> <p>5.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako hizkuntza-eskakizunen baliokide diren ziurtagiri eta tituluak dekretu hauetan zehaztuta daude: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena.</p>	
5.– Gradu pertsonal finkatua.	
Parte hartzen den eskalan gradu pertsonal finkatua duenari gehienez 10 puntu emango zaizkio, banaketa honen arabera:	
Eskatutako lanpostuaren destino-osagarriaren maila bereko edo handiagoko gradu pertsonala duenari.	10 puntu.
Eskatutako lanpostuaren destino-osagarriaren maila baino gradu pertsonal txikiagoa duenari.	5 puntu.
6.– Antzinasuna.	
Gehienez 10 puntu lor daitezke.	
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek hirurtekoen ondorioetarako aitortutako antzinasunagatik.	0,084 puntu hilabete bakoitzeko.
7.– Hizkuntzak jakitea.	
Hizkuntzak jakiteagatik gehienez 10 puntu emango dira. Hauxe da erabiliko den baremoa:	
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko B2 mailaren titulu eta ziurtagiri balio-kideak:	5 puntu.

2025eko irailaren 29a, astelehena

Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko C1 eta C2 mailen baliokideak diren tituluak eta ziurtagiriak:	10 puntu.
Honako lege-xedapen hauetan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotako titulu eta ziurtagiriak bakarrik baloratuko dira: 2015eko ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuaren eranskina (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetarako tituluen eta hizkuntza-ziurtagirien baliokidetasunari buruzko Dekretua), eta 2017ko abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretua (Zenbait ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-ikasketen eta errege-dekretu honetakoen arteko baliokidetzak oinarrizko izaeraz ezartzen dituen Errege Dekretua).	